

**BERRIOZARKO EMAKUME ETA
GIZONEN ARTEKO AUKERA
BERDINTASUNERAKO II. PLANA**

2003ko otsaila

Aurkibidea

1. Alkatearen eskutitza.
2. Plana Emakumearen Zinegotziak aurkeztua.
3. Sarrera.
4. Erreferentzia esparrua.
5. I. Planaren azterketa.
6. Emakumeak Berriozarren duen egoera.
7. II. Planaren ezaugarriak.
 - 7.1 Egitura.
 - 7.2 Helburuak.
 - 7.3 Iraupena.
8. Jarduera esparruak.
 - 8.1 Informazioa eta sentsibilizazioa.
 - 8.2 Osasuna.
 - 8.3 Hezkuntza.
 - 8.4 Kultura.
 - 8.5 Gizarte Ongizatea.
 - 8.6 Lana.
 - 8.7 Hirigintza.
 - 8.8 Kirola.
 - 8.9 Udala.
 - 8.10 Immigrazioa.
9. Abiatzea, jarraipena eta ebaluazioa.

1. Alkatearen eskutitza.

Plan honi opa diogun arrakasta gu guztion lanean, ahaleaginean eta inplikazioan datza. Berriozar herriko elkarbizitzak eskatzen du, emakume eta gizonentzako herritartasun eskubidea erabiltzea oinarri izanik, udal politika guztiak gure herrian elkarrekin bizi diren pertsonei eragiten dieten neurrian aztertzea .

Horregatik, hiri planifikazioa, enplegua, garraioa, ingurumena, etxebizitza, gizarte ongizatea, kultura, e.a. ezin dira generoaren eraginetik kanpo geratu, hau da, emakumeen bizimoduari nola eragiten dioten azertu behar da.

Demokrazia kondizioak berez ezartzen ez direla jakinki, emakumeen sustapena herriko jardunaren sektore guztietan indartzen duten politikei heldu behar zaie. Horregatik abiatu dugu Berriozarren Aukera Berdintasunerako II. Plana, emakumeen egoera, eskaerak eta aldarrikapenak erreferente dituen eta emakumeak partaidetzako esparru guztietara sartzea sustatzeko ekintza positiboak bultzatu nahi dituen.

Berdintasunerako II. Plana sexu arazoia dela eta ez diskriminatzeko lana errazteko tresna da eta udal jarduna oro har inplikatu nahi du. Udala bera berdintasunezko jarreraren eredu bihurtu behar da, denok parte hartuz, gure herrian sexu identitatea kontuan hartuko ez duen berdintasuna hedatzeko.

Hori dela eta, Aukera Berdintasunerako II. Plan honetan azalduko helburu eta estrategiak sustatzea eta garatzea erabaki dugu, bide honetatik garrantzizko urratsak egiteko.

Benito Ríos Ochoa
Berriozarko Alkate-Udalburua

2. Plana Emakumearen Zinegotziak aurkeztua.

Berriozarri garrantzizko zaion gertaera honek gogobetetzen nau. Denok egin behar dugun ahaleginaz jabeturik, ezinbestekoa da alderdi politikoen garrantzia nabarmentzea, baita genero ikuspegia haien agenda politikoan gehitzeko beharra ere, emakumeei alderdi politikoen zuzendaritzan parte hartzea gizonen maila berean ahalbidetuko dieten neurriak hartzeko.

Erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatuak bai emakume bai gizonentzako mundu justuago eta orekatuagoari dagozkion ideia, balore eta portaera ezberdinak sor ditzake. Bigarren Plan honetan lankidetzan da funtsezko lan irizpidea planaren fase guztietan -prestaketatik ebaluazioraino- zuzenean inplikaturiko gizarte eragile guztiek parte har dezaten, bai udal kudeaketako alorrek, Emakumearen batzordeko ordezkari organoek, talde politikoen eta emakume elkarteek bai, oro har, herritar guztiek. Emakumearen Zinegotzigoak eta Udalak Berdintasunerako Bigarren Planean finkatu ditugun helburu eta jarduerak gizarte zuzen eta berdintasunezkoagoa lortzeko bidean aurrera joaten lagungarri izanen ditugu.

Aldatu egin dira emakumeen jarrerak, lanak eta beharrak, baina ez, ordea (salbuespenak salbuespen), gizonen jarrera, oraindik ez baitute egunerokoa bere egin.

II. Plan hau 10 lan alorretan, 10 helburu zehatzetan eta 171 ekintzek garatzen dituzten 10 helburu orokorretan antolatuta dago eta bere xedea da berdintasunaren printzipioa udalerrian gauzatzen diren politika guztietan egon dadin, ez bakarrik planaren segimenduan, beronen ebaluazioan ere bai. Horrenbestez, gizon eta emakumeen artean dagoen ezberdintasuna deuseztatzen laguntzeko tresna izateko jaio den bigarren plan hau prestatzen zuzen edo zeharka laguntza eman duten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiet.

Pilar Moreno de la Chica
Emakumearen Zinegotzia

3. Sarrera.

Dagoeneko XXI. mendearen hasieran gaude eta erronka aukera berdintasunaren printzipioa gauzatzea dugu oraindik ere. Mendebaldeko munduan, espero ziren emaitzak izan ez direla egiaztatzen du egoeraren azterketak. Ezberdintasunak iraun du orain arte, indarrean diren legeek emakumezko eta gizonezkoentzat aukera berberak izatea babesten duten arren.

Egiazko oztopoek eragozten dute emakumeek esparru publikoan erabat parte hartzea. Haiei esleitzen zaien gizarte rolak familiako eta etxeko ardurak, batik bat, bere egiten jarraitzera eramaten ditu eta horrek, gure gizartean aktiboki jarduteko orduan, muga eta, ororen ongian, galera ditu ondorio.

Horregatik da oraindik ere beharrezko politika publikoetan, eta zehatzago udal esparruan, ekintza positiboak gauzatzea, emakumezkoen eta gizonezkoen parte-hartze orekatu eta arduratsua, bai eremu publikoan bai pribatuan, eragozten duten egiazko oztopo horiek deuseztatzen lagungarri.

Berriozarko Udalak, Emakumearen Zinegotzigoaren bitartez, herri honentzat eta bertako biztanleentzat Berdintasunerako II. Plan hau prestatu du. Horretarako aintzat hartu ditu Emakumearen Batzordeak, emakumeen elkarteak, guraso elkarteak, irakasleriak, talde politikoak, zerbitzuek, teknikariek, gizarte, politika eta kultura dinamizatzen dituzten kolektiboak eta oro har biztanleriak eginiko ekarpenak. Helburua ibiliriko bidetik aurrera egitea da, 1996ko Aukera Berdintasunerako I. Planak urratu zuen bide beretik.

Dokumentu hau baliatuz, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa gure herriaren testuinguruan errealitate egiten lagunduko duten gizarte aldaketetan aurrera egin eta sakondu nahi da, baita erakunde publikoen eta gizarte organizazioen inplikazioa genero politiken aplikazioan ere.

Gizonezkoak partaide izatea da, azken finean, xedea; onura elkarrenganakoa delako. Eta biztanleriaren sektore horren inplikazioa ezinbestekoa da berdintasunak teoriatik praktikarako muga zeharka dezan.

Plan hau errealitate zehatz batetik abiatu da, eta horretan atzemandako beharrei erantzun ematea du eginkizuna, baita emakumezkoen eragiten dieten beste orokorrago batzuei ere. Lehen planaren emaitzak eta ebaluazioa izan dira abiapuntua, hala nola gure udalerriko biztanleriaren eta alderdi sozio-ekonomikoen gaineko ikerketak eta NUPeko emakume soziologo

talde batek eginiko ikerketa soziologikoa. Berme ematen dioten oinarriak Berriozarko gizarte errealitatearen azterketatik hartu dira.

Gizarte-fenomeno orokorrak ere hartu dira kontuan, ez bakarrik gure herriari eragiten diotenak. Horrelakoak dira genero indarkeria, pobrezia emakumezkoena egitea eta emakumeek lan merkatuan hasteko eta irauteko dituzten zailtasunak.

Bestalde, Berriozarko errealitate berria egiaztatu da, biztanleriaren heterogeneotasuna, arraza anitzeko herria den heinean, non kulturartekotasuna eta ezberdintasunak errespetatzea beharrezko diren.

Plana jaio da, azken batez, berdintasun politikek biztanleria osoari on egiten dioten eta demokratiko eta zuzen irizten ahal zaion gizarte baterantz joateko beharrezko diren uste sendotik.

4. Erreferentzia markoa.

Berriozarko Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako II. Planak bere barnean hartu ditu Beijing-en izaniko Emakumeen IV. Mundu Konferentziaren Ekintzarako Plataforman hartutako konpromisoak, New Yorken 2000ko ekaineko Nazioarteko Bilkuran berretsiak.

Komunitatearen Ekintzarako IV. Programak herrialde kideek berdintasun kontuetan jarraitu beharreko jardunbideak adierazten ditu. Konpromiso hori kontuan harturik, plan honek estrategia bat hartzen du bere baitan, EBren esparruan "mainstreaming" deritzona, politika espezifikoak politika orokorrean sartzea alegia. Hau da, berdintasunerako politikek gure erakundeen zeregin politikoaren parte izan behar dute.

Berdintasunerako politikek, hortaz, jauzi kualitatibo bat behar dute eta hori maistreaming edo genero zeharkakotasunaren bidez lortzen ahal da; izan ere, strategiak genero ikuspegia politika publiko guzti-guztietan sartzen du eta gizarte osoa berdintasunaren sustapenean inplikatzen da.

Hala eta guztiz ere, adituek adierazi dute benetako kultura ez-diskriminatzailek eta genero berdintasunean gizarte adostasunik ez dagoen bitartean zeharkakotasuna erakundeek eta administrazio baliabideek garatzen dituzten berdintasunerako politika espezifikoek osatu behar dutela.

Genero zeharkakotasuna egoki garatzeko, Europako Kontseiluak beharrezko betekizunak zehaztu ditu. Haietatik ondokoak azpimarratuko ditugu:

- Genero zeharkakotasunak behar ditu, batetik, borondatea eta konpromiso politikoa emakume eta gizonen arteko desorekak gainditzeko eta horien sorburuak deuseztatzeko, bestetik, giza eta finantza baliabide aski emaitza onak lortzeko.
- Bereziki garrantzitsua da emakumeek bizitza politiko eta publikoan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea; emakumeen baloreak, interesak eta esperientziak azken horietan kontuan izaten direla bermatzeko.

Europako Batasuneko aditu batzuen txostenaren arabera (1998), ***alor honetako politika publiko gehienak emakumezkoen zuzendu zaizkie eta ez gizonei, baita sexuen arteko desorekei dagozkienak ere. Argi dago aldaketak mugatuak izanen direla arazoaren alde bakar bati zuzentzen bazaizkio.***

Kontu horiek aintzat hartuta, Berriozarko Udalbatzak Aukera Berdintasunerako II. Plan hau onartzen du. Jauzi

kualitatibo honek harantzago joatera behartzen gaitu, hots, gure inguruneko ekonomia, gizarte eta kultur eragileak inplikatzera emakumeak sartzen dituzten jarduerak abia ditzaten. *Gu guztiok erronka hori geure egiteko zein ahalmen izaten dugun, halakoa izanen da gure herriaren etorkizuna ere.*

5. I. Planaren azterketa

NUPeko emakume soziologoek ikerketa egin ondoren, 1996tik -Berriozarko Aukera Berdintasunerako I. Plana egin zen urtetik- 2002ren bukaera arte populazioa nabarmen handitu dela egiaztatu dugu:

	<u>1996</u>	<u>2002</u>
EMAKUMEAK	2.686	3.706
GIZONAK	2.814	3.985
<u>GUZTIRA</u>	<u>5.500</u>	<u>7.691</u>

Eta handipen ikusgarri hori udalerriko egituren aldaketan islatu da.

Alde batetik, populazio emigrantearen handipenak -535 pertsona 2001eko erroldan- talde horri Plan honetan garrantzi handiagoa ematera behartzen du, baita eraikin berriak direla eta etorri den jende gazteari ere.

Bestetik, I. Planaren alderdi batzuk bete -eta, hortaz, gainditu- egin dira; ez da haiei itzuli behar. Beste batzuk, ordea, ez dira aski barneratu edo ez dira gauzatu eta horregatik da beharrezko aldaketa horiek jasoko eta Berriozarko egungo gizartera egokituko dituen II. Plana egitea.

Bete diren helburuei dagokienez, Laira Familia Plangintzako Zentroa irekitzea eta sendotzea lortu da, ordutegia zabaldu eta langile kopurua handitu behar badira ere, egun kolapsaturik dagoen eskaerari erantzuna emateko.

Osasun alorrean, menopausiari buruzko hitzaldiak eta bestelako ekintzak antolatu dira. Balorazioa oso positiboa izan da eta eskaerak oraindik dirau. Bestalde, Osasun Etxeak gainezka egin du, beharrezkoak dira, bada, arazo larri hori konpontzeko bestelako ekintzak, horretarako baliabide teknikoak eta giza baliabideak emanda.

Hezkuntzari dagokionez, oraindik ere eskatzen dira neska gazteentzako prestakuntza eta informazioa hainbat baloreen inguruan, hala nola auto-estimua eta gizarte trebetasunak. Era berean, prestakuntza arautua ez sexuan baizik eta giza trebetasunetan eta gaitasunetan oinarritua egon dadin eskatzen da; eta hezkidetzaren curriculum diseinuetan zeharkako gai izan dadin, DBHK dagoeneko exijitzen duen gaia.

Kultur eremuan, 2002an berdintasunaren gaineko argazki lehiaketari laguntza eman zitzaion eta dirulaguntzetan eta jardueretan kultur ekintzak egiten dituzten emakume taldeak babestu dira, ehoziri-panpailagileak kasu.

Emakumearentzako Laguntza Zentroa, Alba Zentroa izenekoa, finkatu egin da. Bertan lege aholkularitza eskaintzen da eta eskatzaile bakoitzari behar duen laguntza ematen zaio. Emakume taldeen elkargunea da, asoziazionismoa sustatzen du eta emakumeentzako ikastaroak, hitzaldiak, e.a. antolatu eta ematen ditu, emakume bakoitzaren aurrerapen pertsonala areagotzea eta norberaren buruan seguritatea indartzea helburu.

Halaber, aukera berdintasunaz ohartarazteko kanpainen erdigunea da eta bertan planifikatu eta koordinatu dira bai I. Planaren abiaraztea bai Gizon eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa, planifikazioa eta abiaraztea.

Haatik, zerbitzuak gainezka egin duela eta, langile kopurua handitzeko beharra dago, baita genero ikuspegiko laguntza psikologikorako zerbitzu bat sortzeko ere.

Lan alorrean, udalerrian kokaturiko enpresaren batek - Decathlon, esaterako- kontratazioetan Berriozarko emakumezko gutxieneko kopuru bat sartzea lortu da.

Udalaren idazkietan @ erabiltzen dela ikusi dugu, hizkuntzari kutsu sexista txikiago emateko, nahiz eta oraindik ere zenbait udal komunikaziotan hizkuntza sexista aurkitzen dugun. Bestalde, Udalak emakumeen kausak egun seinalatuetan babestea erdietsi da, hala nola azaroaren 25ekoa, emakumeek pairatzen dituzten tratu txarren aurkakoa. Portaera horiek gaitzesteko Udalak bando bat argitaratu zuen.

Hezkidetzan haurrak eta gazteak heziketa sexistaz ohartu dira, nahiz eta adin talde batzuei zenbaitetan kostatzen zaien hezkuntzari (bai eskolan bai familian eta gizartean) estali dagoen sexismo hori antzematea. Beharrezkotzat jotzen dute parte-hartze handiagoa herriko bizitzan eta erantzukizun postuetarako sarbidean.

6. Emakumeak Berriozarren duen egoera

6.1. Ikuskera globala

Berriozarko biztanleria nabarmen handitu da 1995etik aurrera. 1996tik 2002ren bukaera arte ia %40, hau da, 1996an 5.500 ziren erroldako pertsonak eta 2002an 7.691. Bi dira batik bat handitu diren populazio taldeak: gazteria eta immigranteak.

Biztanleriaren handitzeak, haren idiosinkrasiarekin batera, gabezia edo arazo batzuk sorrarazi ditu emakumeengan eta Plan honek konpondu edo arindu nahi ditu.

Beste alde batetik, eta udalerriko egoera bere orokortasunean hartuta, Berriozarko emakumeek arazo larriak izaten dituzte lan eta familia alorrek bateratzen saiatzen direnean, udal zerbitzu guztiak kolapsaturik baitaude, Udala bera, Osasun Etxea, Laira, Alba Zentroa...

Behar-beharrezkoa da udal zerbitzu guztiak giza baliabide eta baliabide tekniko gehiagok hornitzea hain garrantzi handiko gabezia horiei aurre egiteko. Izan ere, Berriozarren azken zazpi urteetan populazio hazkunde ikaragarria izanik, herritarrentzako zerbitzuak ez dira hein berean handitu.

6.2. Ikerketaren azterketa

Ikerketari arreta handiagok erreparatuz, ondorio batzuk ateratzen ahal ditugu emakumeek Berriozarren duten egoeraz eta egungo gizarteari antzematen dioten moduz:

- Emakumeek ez dute udal zerbitzuen berri, hots:
 - %22k ez du Laira ezagutzen,
 - %10ek Udala, eta
 - %32k Infolan.
- Galdetutako emakumeen %71k proportzio honetan hartzen du parte Udalak sustaturiko jardueraren batean:
 - %27k kultur jardueretan
 - %24k aisialdiko jardueretan
 - %20k kirol jardueretan.
- Eta Berriozar oso herri aktiboa dela nabarmentzen dute, nahiz eta batzuek desadostasuna agertu,

gazteenek batik bat, aisialdi guneak eta berentzat pentsaturiko jardunak eskatzen dituzte eta.

Ikerketaren arabera, hauek dira Berriozarko emakumeek gaur egun dituzten arazo nagusiak:

- . langabezia
- . etxebizitza
- . eguneko zentro edota haur-eskola falta

Banan-banan aztertuz, emakumezkoen langabezia gizonezkoena baino askoz handiagoa da, ez Berriozarren bakarrik, baita oro har Nafarroan eta nazio-lurraldean ere. Emakumeok diskriminatuak izaten segitzen dugu langileak aukeratzeko unetik beretik, egoera berean gizonen atzean zokoratzen baikaituzte, maiz gizonak baino trebetasun eta gaitasun hobeak eduki arren posturako. Aitzakia nagusiak amatasuna eta seme-alaben zaintza izaten dira, oraindik ere.

Plan honek Berriozarko emakumezkoen langabezia hori gutxitzeko eta lanean ari diren emakume eta gizonak parekatzeko neurriak proposatuko ditu.

Etxebizitza da Berriozarko emakumeen arazo larrienetako beste bat, batez ere gazteei dagokienez. Etxebizitza libreen prezio altuek eta emakumeek lan egonkorra aurkitzeko duten zailtasunak gaur egun etxea erostea ia-ia odisea bihurtzen dute. Biztanleriak babes ofizialeko etxebizitza gehiago eskatzen du Berriozarren, baina Berriozarko biztanleentzat. Gainera, familien egitura era askotakoa izaten da gaur egun eta eraikiriko etxeak ez dira askotan hartara egokitzen. Gero eta anitzagoak dira familia guneak: guraso bakarrekoak, ondorengo gutxi, seme-alabarik gabeko bikote gazteak, dagoeneko seme-alabarik gabe bizi diren baina askotan bilobak edo pertsona nagusiak beren menpe dituzten bereiztu edo dibortziaturiko emakumeak, e.a. Bakoitzarena oso problematika berezia izaten da etxea aurkitzeko orduan.

Puntu honetan islaturik ikusten dugu Plana iradoki duten helburu handienetako bat: zeharkakotasuna, alegia, zeren neurri hauek zinegotzigo batzuk biltzen baitituzte.

Planak helburuak eta ekintzak finkatuko ditu etxea erostea merkexeagoa edo errazagoa izan dadin, Berriozarko egungo egoerara egokituz.

Hirugarren arazoa udalerrian **Eguneko Zentro falta izatea eta Haur-Eskola gehiago** behar izatea da. Arazo horrek lan eta familia alorrek bateratzearen gaiaren erdi-erdira sartzen gaitu.

Mekanismo batzuk ezarri behar ditugu mendeko pertsonak (nagusiak, adinez txikiak, ezindiak, minusbaliatuak, adimen-osasuneko arazodunak...) bere kontu dituzten emakumeek, pertsona horiek zaintzeko zentroak eskura izan ditzaten lanean ari direla. Pertsona horiek zaintzea gizarte zeregina da eta gizarteak neurriak hartu behar ditu, zaintzeko denborarik ez izate soilagatik, pertsonok lanari utzi behar ez izateko, edo lan ez-egonkorrik edo lanaldi partzialekorik bilatu behar ez izateko.

Arazo horiei garrantzi handiena ematen badiete ere, Berriozarko emakumeek bete zuten inkestan azpimarratu dituzten beste batzuk ez ditugu aipatu gabe utziko.

Hortaz, enplegurako prestakuntza jartzen dute laugarren, drogak bosgarren...

Bitxia da zazpigarren tokian **laneko ezberdintasunak** agertzea, ehunekoa hirugarrenekoaren antzekoa izanik. Nahiz eta Berriozarko emakumezkoek gehien eragiten dien arazoetako ez dela eman dezakeen; gaian sakonduz gero, ikusten ahal da ezberdintasun jarrera horiek hain maiz pairatzen ditugunez askotan ohikotzat hartzen ditugula, izan ere, gizarteratu eta saihestezintzat jotzen ditugu eta, hortaz, etsipenez ohitzen gara bereizkeria horretara.

Bederatzigarren eta hamargarren tokietan **tratu txar psikologikoak eta fisikoak** ditugu, hurrenez hurren, eta hamabigarrenean, **heziketa sexista**.

Bitxia iruditzen zaigu tratu txarrak Berriozarko emakumeek eragiten dieten arazoetan agertzea, beheko postu batean bada ere, eta, hala ere, tratu txarrei buruz eman zituzten erantzunen arabera, herriko emakume gehienek urruneko zerbait deritzete, beren inguruan gertatzen ez den zerbait.

Inguruan pairatzen dituen emakumerik ezagutzen ez dutela adierazten dute gehienek eta haiei berei inoiz gertatuko ez zaielakoan daude.

Baina, beste aldetik, nahigabea hautematen da gizarteak tratu txarren biktimekin duen portaera dela eta, eta eskatzen dira neurri juridiko murriztaileagoak eta biktimentzat babesleagoak, laguntza sozial gehiago, lehenasunezko etxeak etab.

Heziketa sexistari dagokionez ere ikusten dugu beste arazo batzuk baino beherago dagoela. Baina, haatik, heziketa berdintasun ikuspuntutik abiatzeko beharra jaso zen ikerketan, amek seme-alabei ematen zieten heziketa beren aurrekoengandik iritsi zitzaiena zelako, heziketa benetan sexista, bestalde.

Horko itxurazko kontraesan hori, hezkidetza beharra agertzearen eta heziketa sexistaren arazoa hain behean jartzearen artekoa, laneko bereizkeriarekin gertatzen den bezala,

guk jokaera horiek gizarteratzearen ondorio da, kultur eta gizarte prozesu ezin aldatuzkotzat hartzen ditugu eta.

Horregatik da garrantzitsua diskriminazio eta indarkeria portaerak aldatzen ahal dituzten hezkidetzak ereduak ezartzea bai eskolan bai familian, heziketa sexista indarkeriazko jarreraren hazi nagusia delako.

Udal zerbitzuak aztertzen baditugu, populazio gazteak eta helduak ikuspegi ezberdin samarra dutela aurkitzen dugu, kasu gehienetan.

Gaztetxea. Oso ikuspegi ezberdinetatik baloratzen dute erabiltzen dutenek -hots, gazteenek- eta haien amek. Lehenengoen iritziz, positiboa da lokala eta jarduerak berek kudeatzea, nahiz eta jarduerok noizbehinkakoak eta laburrak izan direla frogaturik egon. Amen ustez, Udalak laguntza eman beharko zien gazteei eta pertsona arduratsu batek zuzendu beharko zituen.

Osasun Etxea. Gainezkarazi egin du biztanleriaren hazkunde ikusgarriak, batik bat haur txikiak dituen edo ugaltzeko garaian dagoen jende gaztearenak. Berriozarko emakumeek premia eskatzen dute zerbitzu gehiago. Itxaroteko ilarak bukaezinak dira, hitzorduak eskatzen diren eguna baino bat edo bi beranduagorako ematen dira... Bitarteko teknikoak eta materialak eta giza baliabideak urriak dira nola oinarrizko laguntzan hala pediatrian. Zerbitzuko orduetara ere urri deritze.

Laira. Hau ere gainezkatuta dago, hainbeste dira hitzorduak eta azterketak. Bestalde, zerbitzu orduak zabaltzea eskatzen da.

Udala. Emakumeen iritzia da Udalak zerbitzu orduak zabaltzea beharko lituzkeela oso zaila egiten zaielako beren lan ordutegia eta Udalak ematen duen zerbitzua adostea.

Berriozarko azpiegiturei erreparatuta, emakume guztiak ados datoz hiri garraioaren gabeziak aipatzean. Arrazoiak honakoak dira: linea eskasia, komunikazio falta unibertsitateekin, ospitaleekin eta abarrekin eta zerbitzuen maiztasun txikia.

Udalak bere alorren bitartez **sustaturiko jarduerak** direla eta, galdeginiako emakumeen %70ek nola edo hala jardueraren batean parte hartzen du. Horien ia % 50 ez da zerbitzuekin gustura geratu arrazoi hauengatik: jarduera gutxi dago, gazteen ustez; ordutegiak ez dira egokiak lan edota familiako zereginekin adosteko eta lokalak ez dira egokiak. Kontuan hartu, hala ere, Osasun Etxera, Gizarte Zerbitzuetara, Lairara, Alba zentrorara... joaten diren emakumeek ere erantzun dutela.

Euskarari buruz, emakumezkoen %17k ezagutzen du eta %8 ikasten ari da; guztira, beraz, populazioaren %25.

6.3. Berdintasuna eta Ezberdintasuna emakumeen iritziz

Arestian islatu dugun bezala, oso bitxia da udalerriko emakumeek tratatu ezberdintasunari eta feminismoari antzemateko duten modua. Esparru batzuk aztertu dira ikerketan Berriozarko emakumeen aurkako bereizkeriarik dagoenentz idatzirik uzteko.

Hortaz, **Udalaren** jarduna galdeturikoen %25ek neurri txikian jotzen du berdintasunezko zat. Ehuneko hori, adin segmentuetan banaturik, 26 urtetik 35 urterako tartean iristen da puntu gorenera. Eta, prestakuntzari begiratuta, ikasketa gehiago dutenak eta, familia egoerari begiratuta, dibortziatuak eta bereziak dira desadostasuna adierazten duten gehienak.

Lanpostuari dagokionez, Berriozarko emakumeek diote, oro har, diskriminazio traturik ez dutela jaso -36 eta 45 urte bitartekoak salbu, haiek atzeman baitute diskriminazio hori beste taldeek baino neurri handiagoan-, baina, Berriozarren hauteman dituzten arazoan zerrenda aztertzen badugu, aurreko atal batean azaldu dugun bezala, laneko ezberdintasunak zazpigarren tokian jartzen dituzte.

Datu horietatik konklusio hau ateratzen ahal dugu: emakumezkoak batzuetan ez ditugu egoera horiek diskriminaziozko zat hautematen, benetan holakoak izan arren. Izan ere, lehen esan dugunez, portaera horiek hain dira usuak, denbora pasa ahala portaera arruntak iruditzen baitzaizkigu.

Hori dela eta, indarrez ekin behar zaio emakumezkoak beren lan eskubideez ohartarazi eta jakinaren gainean jartzeari - eskubide horiek gizonezkoek dagozkien neurri beretan dagozkie eta-, baita diskriminazio egoerez eta kontzeptuez ere.

Etxeko lanen banaketari buruz nabarmentzekoa da galdeginiko emakumeen %44ren iritziz etxean berdintasunezko banaketa dutela, neurri handi edo txikiagoan, berek beti lan horietan bikotekideak baino gehiago egiten dutela eranstean badute ere. Horregatik ez du ematen zereginen berdintasunezko banaketaren kontzeptua nahikoa argi dagoenik; biztanleria jabeaz beharko dugu zereginen berdintasunezko banaketa familiaren eginbeharra dela, ez emakumezkoarena.

Zereginen banaketarekin nahasi behar ez den laguntza dela eta, gehien jasotzen duten emakumezkoak beheko adinetakoak eta maila altueneko ikasketak eginitakoak dira. Familia egoeretan aztertutik, izatezko bikoteetan egiten da gehien banaketa.

Adin tarte horietan elkarlan handiagoa aurkitzen dugu, bai, baina, betiere, ez banaketatzat baizik eta "laguntzatzat" harturik. Bai emakumezkoak bai gizonezkoak ohartarazi behar dira etxeko zereginak berdinean dagozkiela gizon eta emakumeari, ez baitira emakumeak emakumezko izateagatik daukan eginbeharra.

Etxean ematen den heziketari buruz, heziketa sexista gehien gizarteratu duten taldeak honakoak dira: emakume ezkonduak, dibortziatuak eta lehen mailako ikasketak egindakoak. Horiek dira heziketak familian berean izan behar duen aldaketaz gutxien ohartzen direnak.

Azpimarratu behar da, horregatik, egoera horietaz jabeazteko sentsibilizazio-lana, egoerok atzeman eta eragotzi ahal izateko.

7. II. Planaren ezaugarriak

7.1. Egitura

Plana 10 jarduera-alorretan banatu da, Berdintasunerako I. Planeko berak gehi Informazio eta sentsibilizazioa eta Immigrazioa alorrak. Emakumezkoarekin erlazionaturiko gai guztietan sentsibilizazio eta informazio falta antzeman dira. Bestalde, immigrazio alorrean, azken urteetan ehunka pertsona immigrante etorri dira udalerrira bizitzera. Berezko problematikagatik beren atala merezi dute, aurreko Planean ez zegoena.

Alorren diseinuari buruz, bera da guztietan:

- Helburu orokorra
- Helburu zehatzak
- Helburu zehatz bakoitzari dagozkion ekintzak

Azkenik, Plana ebaluatzeko, jardunean aztertzeke eta abiarazteke metodo bat finkatu da.

7.2. Helburuak

Berdintasunerako Planen helburu handiak 1995ean Beijingen egin zen Konferentziatik beretik datoz, eta jarraipena izan dute EBk 1996-2000 urte tarterako erabakitako Komunitateko IV. Ekintza Programan.

Zereginen banaketa edo erantzukidetasuna.

Etxeko lana zeregin sozialtzat jo behar da eta, familia osoaren onurarako izanik, ez da bakarrik etxeko emakumearen edo emakumeen eginbeharra, baizik eta familiako kide guztiena "orobat". Hots, ez dadin *laguntza* izan, zereginen berdintasunezko banaketa baizik.

Emakumeek politikan eta erantzukizun esparruetan gehiago parte hartzea

Tradizioan, emakumeei eremu pribatua utzi zaie (ugalketa eta zaintza) gizonetzko eremu publikoa, politikarena. Zorionez, gauzak aldatuz doaz, oso pixkanaka bada ere. Emakumeek politikan eta erabakiak hartzeko eremuetan askoz gehiago parte hartzea lortu behar dugu, lege eta arauak orain ez duten emakumezkoen ikuskera hori izan dezaten, gure ikuspegi eta kezkek kontuan izan ditzaten.

Aukera Berdintasunaren printzipioaren zeharkakotasuna alor guztietan, Kultura edo Kirolak zein Ekonomia nola Hirigintza izan

Aukera Berdintasunaren gaia ez da Emakumearen Zinegotzigoak heldu behar dion zerbait, ez da emakumeei beste

inori ez dagokion zerbait. Zuzentasun gaia da, nazioarteko eta Europako zuzenbideak aitortu bezala, eta udal alor guztietan hartu behar da kontuan, diskriminazioa legez debekaturik dagoelako.

Emakumeen aurkako indarkeria oro ezabatzea.

Emakumeen aurkako indarkeria bidegabekeria arbuigarria da. Gizarteak mendeetan eman dien nagusitasuna baliatzen dute gizonek beren apetak, beren nahiak, emakumeei inposatzeko. Mendekotasunean oinarritzen da dena. Hori desagertuko balitz, indarkeria mota guztiak desagertuko lirateke. Egin diezaiozun aurka arazoari errotik, *ekin diezaiozun berdintasunezko hezkidetzari*.

Printzipio horien eragin osoa dute Planaren espirtuak eta bertan zehazturiko ekintza guztiek.

7.3. Iraupena

Lau urteko iraupena aurreikusi da bertan deskribaturiko helburu eta ekintza guztiak gauzatu ahal izateko.

8. Jarduera esparruak.

8.1. INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA.

Emakume bakar batek lanean, gizartean, politikan edo alor pertsonalean sexua dela-eta diskriminaziorik pairatzen duen bitartean, berdintasunerako organismoak, ekintza positiboak eta informazio, laguntza eta aholkularitza guneak existitu beharko dira.

Gaur egun emakumeak aurreratu du ordainduriko lan mundura sartzeari dagokionez, baina hori askoz lasterrago egin du gizonak etxeko zereginak eta seme-alaben eta mendeko pertsonen zaintza bere gain hartu baino. Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeak lanaldi bikoitza egin beharrean egoten dira eta horrek arazo pertsonalak, familiarrak eta sozialak ekartzen ditu. Emakumeek etxetik kanpo lanik ez egiteko eta bete-betean beren "familia eginbeharretan" aritzeko moduan antolatu da gizartea. Etxeko lana ez da baloratzen; emakumeek auto-estimua galtzen dute; etxe barneko indarkeria urtez urte handitzen da..., baita emozio alorreko laguntza bila dabilen emakume kopurua ere.

Funtsezkoa da gizonen inplikazioa Aukera Berdintasunaren alde.

Berdintasuna aldarrikatzea zilegi da.

Helburu orokorra.

Biztanleria sensibilizatu behar da, batetik, emakumeek pairatzen duten diskriminazioaz eta, bestetik, emakumeak eta gizonak berdinak izanen diren eta pertsonen arteko ezberdintasunak errespetatuko diren gizarte eredu berri bat sortzeko beharraz. Bestalde, erantzukidetasuna esparru guztietan garatu eta gauzatu behar da, eta, horretarako, koordinatu behar da Berdintasunerako Plan honen abiatzea, jardunean aztertzea eta ebaluatzea.

Helburu zehatzak.

1. helburua.

Berriozarko biztanleei emakumeek gaur egun sexua dela-eta pairatzen dituzten diskriminazioak erakustea eta gizon eta emakumeen arteko Aukera Berdintasuna sustatzea.

1.1. EKINTZA

Emakumeek esparruen arabera -lana, etxea, gizartea...- pairatzen dituzten diskriminazioak erakusteko kanpainak egun seinalatueterako planifikatzea: martxoaren 8a -Emakumearen Nazioarteko Eguna-, azaroaren 25a -Tratu Txarren Aurkako Eguna-, herriko festak -berdintasuna festetan- etab.

1.2. EKINTZA

Egunerokoaren esparruetan aukera Berdintasuneko eta genero ikuspegiko prestakuntza programatzea: lana, gizartea, ekonomia, osasuna, familia, hezkuntza etab.

1.3. EKINTZA

Familiako arduren banaketari buruzko kanpainak, gizonezkoentzako praktikak barne: zeregin zehatz batzuk egiten ikasteko ikastaroak, berdintasunari buruzko tailerrak, hezkidetzako funtsezko oinarriak etab.

1.4. EKINTZA

Udal alorretan eta alor pribatuetan neurri positiboak aplikatzeko beharra zabaltzeko kanpaina.

1.5. EKINTZA

Udalerrian bizikidetzako era ezberdinak daudela zabaltzea: guraso bakarrekoak, izatezko bikoteak (sexu berekoak eta sexu ezberdinekoak)...

1.6. EKINTZA

Berriozarko emakumeek sexua dela-eta pairatzen dituzten diskriminazio guztiak jendaurrean salatzea.

2. helburua.

Berriozarko emakumeen artean asoziazionismoa bultzatzea.

2.1. EKINTZA

Asoziazionismoari buruzko ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak etab. programatzea eta haren abantailen berri zabaltzea.

3. helburua.

Emakumeak Berriozarko gizarte eta politika eremuetara sartzea.

3.1. EKINTZA

Udalerrian diren udal baliabideak indartzea, hala nola Emakumearen Zinegotzigo eta Batzordearenak.

3.2. EKINTZA

Mota guztietako zerbitzuen ordutegi malgua sustatzea, bai udalekoena bai pribatuena, emakumeen beharrak kontuan hartzea xede.

3.3. EKINTZA

Aukera Berdintasunerako Plana bultzatzea eta aplikatzea eta administrazioko alorrekin koordinatzea.

4. helburua.

Berriozarko emakumeei ematen zaien zerbitzu integrala hobetzea.

4.1. EKINTZA

Emakumearentzako Alba Laguntza Zentroa baliabide teknikoez eta giza baliabideez hornitzea.

4.2. EKINTZA

Alba Zentroan genero ikuspegia izanen duen laguntza psikologikoko zerbitzua sortzea.

5. helburua

Berriozarren emakumeen kontra gertatzen den indarkeriari buru egitea.

5.1. EKINTZA

Bai Berriozarren bai Foru Komunitateko gainerako tokietan indarkeriaren eta tratu txarren inguruan diren baliabide guztiak ezagutzera ematea.

5.2. EKINTZA

Tratu txarren aurka ohartarazteko kanpainak diseinatzea eta, delitu publikoa eta ez pribatua direlako, tratu horien salaketa bultzatzea.

5.3. EKINTZA

Tratu txarren arazoarekin erlazionaturiko baliabide teknikoak eta giza baliabideak zabaltzea beste zerbitzuekin koordinazioa - Harrera etxea, Larrialdietarako zentroa, SAM, Nafarroako Emakumearen Institutua (INAM) eta abar-, eraginkorrago izateko.

ALOR ARDURADUNAK:

Berriozarko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoa, Alba Zentroa eta Ogasun eta Langileen alorrak.

8.2. OSASUNA

“Gizon baino emakume gutxiago hiltzen dira eta, oro har, emakumeak zaharrago hiltzen dira. Baina horrek ez du nahitaez esan nahi emakumeen osasuna gizonena baino hobea izaten denik, zeren bizitzan gaixotasun eta arazo asko izaten baitituzte, batzuetan lan-zama bikoitzak (etxekoa eta etxetik kanpoko) eta amatasunak larriagoturik. Haurdunaldia eta erditzea prozesu fisiologiko osasuntsuak eta normalak dira, baina, aurkako faktorerik dagoenean, - hala nola pobrezia, desnutrizioa eta gehiegizko lana-, osasun arazo bihur daitezke emakumearentzat”.

Osasuna eta medikuntza ez dira gauza bera. Osasuna ongizatea da, ez fisikoa bakarrik, baita emoziozkoa eta soziala ere.

Gizarteak emakumeari eman dizkion zereginak dira familia osoaren zaintzailea eta osasun emailea izatea. Horrek eta etxeke eginbeharren banaketa desorekatuak -hots, lanaldi bikoitzak-, osasun galera ekartzen diote emakumeari. Horregatik, prebenitzeko sistemak sendotu behar dira, laguntza medikoa emakumeen ziklo biologikoei eta haien sexuaren berezko ezaugarriei egokituz.

Bereziki kontuan hartu behar ditugu jatorrian tratu txarrak dituzten arrasto eta patologia, psikologikoak batik bat, fisikoez gain.

Helburu orokorra

Berriozarko emakume guztientzako laguntza integrala bermatzea, beren sexuaren eta adinaren berezko ezaugarriei dagokiena, tratu txarren eta emakume langileek jasaten duten lanaldi bikoitzaren arazo larria oso kontuan hartuz.

Helburu zehatzak

1. helburua

Emakumea lan-merkatuaz marjinaletik eta emakume langileei eragiten dien lanaldi bikoitzetik datozen lan osasun arazoak hautematea.

1.1. EKINTZA

Lanetik sorturiko faktore psikosozialei buruzko sentsibilizazio-kanpainak antolatzea eta dokumentazioa prestatzea. Hartzaileak izanen dira Osasun Etxeko bai Laira Zentroko medikuntza alorreko langileak nola udalerriko emakumeak. Horrela arazoak hauteman eta, egokia bada, laneko gaixotasuntzat katalogatu ahalko dira, ez gaixotasun arruntzat.

1.2. EKINTZA

Lanaldi bikoitzari buruz biztanle guztiak jabeazteko kanpainak eta Osasuneko mediku eta gainerako langileentzako prestakuntza planifikatzea. Azaldu behar da lanaldi bikoitzak -etxekoa eta lanekoa, azken hori ordaindua zein mendeko pertsonen zaintza izan-emakumeen osasun fisiko eta psikologikoa kaltetzen duela, horren berri izanik, hautemate goiztiarra egin dadin.

1.3. EKINTZA

Lan osasuneko prestakuntza lan egiteko adinean dagoen emakumezko ororentzat.

2. helburua

Tratu txarren edota sexu erasoen biktimei benetako zerbitzu integrala ematea.

2.1. EKINTZA

Jarduera soziosanitariorako Nafarroako Gobernuaren protokoloa benetan gauzatzea, beste zenbait udal zerbitzurekin koordinazioan.

2.2. EKINTZA

Tratu txarrak jasandako emakumeen eta adin txikikoen sintoma fisikoei eta psikikoei buruzko txostena egitea, lehen mailako arretako osasun-langileentzat. Sintoma fisikoak nola psikikoak (hautematen zailagoak) jasoko dira txosten horretan, genero indarkeriaren biktima izan daitekeen orori laster atzemateko.

2.3. EKINTZA

Tratu txarren gainean ohartarazteko kanpainak planifikatzea, salatza bultzatzea barne, delituak baitira.

2.4. EKINTZA

Tratu txarrei genero ikuspegitik heltzeko prestakuntza, medikuntza, lege eta gizarte alorretako langileentzat.

2.5. EKINTZA

Tratu txarrak jasandako emakumeei lehentasuna ematea eta dauden baliabideen aholkularitza erabiltzea.

3. helburua

Aztura osasungarriak sustatzea emakumeen artean, adina eta egoera kontuan harturik.

3.1. EKINTZA

Kontsumorako heziketa kanpainak, adin tarteen arabera egokituak.

3.2. EKINTZA

Osasun heziketaren inguruko informazio hitzaldiak menopausian dagoen emakume taldearentzat, beren osasuna eta bizi kalitatea hobetzea xede.

3.3. EKINTZA

Osasunerako heziketako jarduerak bultzatzea honako alor hauetan: elikadura, ariketa fisikoa eta antsietate edo estresaren kontrola.

3.4. EKINTZA

Laguntza berezia gutxiengo etnikoetako emakumeei.

4. helburua

Emakumeen osasuna bereziki zaintzea, sorkuntza alderdira murriztu gabe.

4.1. EKINTZA

Ikastaro bereziak emakume zaintzaileentzat: adimen osasuna, lehen sorospenak, farmakologiaren kontrola, nor bere osasuna zaintzea...

4.2. EKINTZA

Haurdun daudenei zaintza integrala, erditzeko prestakuntzatik erditu ondorengo depresioa, dagoenean, zaintzeraino.

4.3. EKINTZA

Emakumeak osasunarekin erlazionaturiko elkarteak eta auto-laguntzarako taldeak sortzera bultzatzea.

5. helburua

Gizonak seme-alaben zaintzan eta familia planifikazioan sartzea, partekatzeke zereginak baitira.

5.1. EKINTZA

Guraso izanen direnentzako ikastaroak umetxoaren zaintza partekatuari buruz eta indarkeria eta diskriminazioa saihestuko dituzten berdintasunezko balioei buruz.

5.2. EKINTZA

Kanpainak, tailerrak eta bestelakoak bi bikotekideek elkar inplikatzeko kontrazepzioan, gestazio kontrolan, etab.

6. helburua

Lehen mailako arreta zerbitzuan eta pediatria eta ginekologia zerbitzuetan itxaroteko zerrendak eta ilarak laburtzea.

6.1. EKINTZA

Nola Osasun Etxea hola Laira beharrezko baliabide teknikoek eta giza baliabideez hornitzea kalitatezko osasun zerbitzua bermatzeko, ordutegi zabalagoak barne.

6.2. EKINTZA

Lairako ordutegitik kanpoko larrialdiei erantzutea, koito ondoko pilularen preskripzioa bideratuz.

7. helburua

Emakumeak Osasun Arloko jarduera guztietan agerraraztea.

7.1. EKINTZA

Berriozarko Osasun alorrean argitaratzen diren agiri, jakinarazpen, kartel eta liburuxka guztietan irudi, ikur eta hizkuntza ez sexistak erabiltzea.

7.2. EKINTZA

Osasun Arloko erregistro guztietan sexu aldagaia exijitzea.

7.3. EKINTZA

Osasun jarduerak gauzatzen dituzten enpresak edo pertsonak kontratatzeke oinarrietan lehentasunezko irizpideak sartzea honako neurri hauetako bat dutenentzat: emakumeen gutxieneko kopurua langileen artean, giza baliabideen politikan neurri positiboak emakumezkoentzat, emakumeen kontratazioa hobestea.

ALOR ARDURADUNAK

Berriozarko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoa, Osasuna, Hezkuntza, Kirol Patronatua, Gizarte Zerbitzuak, Ogasuna eta Langileak.

8.3. HEZKUNTZA

Berriozarren, Arkitektura edo Ingeniaritza Teknikoa ikasi duten pertsona guztien %24,1 soilik da emakumezko. LH egin duten pertsona guztien %47,9 da emakumezko, baita unibertsitateko ikasketak bukatu dituztenen %60,6 ere. Udalerriko emakumeen %12k ez daki ez irakurtzen ez idazten.

Musika Eskolan instrumentu batzuk "emakumezkoenak" direla eta beste batzuetan emakumezkoek ia parte hartzen ez dutela ikusi dugu. Akordeoian, esaterako, emakumeak gizonak halako bi dira, txirulan 12 emakume eta gizon bakarra, eta, bestalde, saxofoian 12 dira gizonak eta 5 emakumeak, eta metalezko haize-instrumentuetan, 16 gizon 6 emakumeren aldean.

Hezkuntza gizartearen balio eta sinesmen sozialak transmititzeko ingurune nagusia da. Eskola berdintasunezko gizartea eraikitzeke esparru ezin hobea da. Neska-mutikoek hezkuntza sexista jasotzen segitzen dute. Horregatik da beharrezko eskola mistoaz haratago doan hezkidetza; sexua edozein dela ere, neska eta mutikoen ahalmenen eta banakotasunaren onarpenean oinarritzen den hezkidetza. Mota orotako diskriminazioa errefusatzean datza.

Gizarte justuago eta berdintasunezkoagoa sendotu nahi badugu, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabea, hezkuntza sistemaren maila guztietan hezkidetza ereduak erantsi behar ditugu.

Helburu orokorra

Etorkizuneko gizarte ez sexista eta estereotiporik gabea sortzea, non emakume eta gizonek gure xede eta helburuei berdintasunez heltzen ahal izanen baitiegu, mota guztietako indarkeriak ezabatuko dituen errespetuko eta tolerantziako ingurunean.

Helburu zehatzak

1. helburua

Irakasleak, guraso elkarteak, eskolako kontseiluak etab. hezkidetzaren ezarpenean inplikatzeari.

1.1. EKINTZA

Aukera Berdintasunerako II. Plana ikastetxeetan eta, batik bat, irakasleen artean hedatzea.

1.2. EKINTZA

Hezkidetzaren tailerrak ikasleei ematea, adin tarteei egokiak.

1.3. EKINTZA

Hezkidetzak, zeharkako alorra den aldetik, esparru guztietan duen funtsezko garrantziaz ohartarazteko eta prestatzeko guraso elkarte eta irakasleentzat hitzaldiak egitea. Eskolan, gizartearen eta familian erantzukidetasun, lan orientazio ez sexista eta bestelakoen garrantziaz jabetu behar dira.

1.4. EKINTZA

Irakasleak hizkuntza ez sexista erabiltzeko prestatzea eta eskolan beste hainbat ikastetxetan eginiko hezkidetzaren esperientzia positiboak ezagutaraztea.

1.5. EKINTZA

Irakasleekin batera material didaktikoa lantzea, material horren bidez eremu pribatu eta publikoko erantzukidetasuna sustatzeko.

1.6. EKINTZA

Ikastetxea udalerrian aukera berdintasunaren gainean antolatzen diren jarduerak guztietan parte hartzeko bultzatzea.

2. helburua

Hezkuntza sexistaren inguruko estereotipoak ezabatzea.

2.1. EKINTZA

Emakumezkoek trebetasun sozialak, auto-estimua, teknologia berrietako prestakuntza, etab. garatzeko ikastaroak planifikatzea.

2.2. EKINTZA

Emakume askok "gizonezkoenak" diren sektore batzuetan izaniko garrantziaz jabeazteko kanpainak, oraingo eta geroko belaunaldietarako eredu izan daitezten.

2.3. EKINTZA

Zientzia eta teknologia alorretako ikasketa eta lanbideak Berriozarko neska ikasleen artean bultzatzea.

2.4. EKINTZA

Eskolan zein eskolatik kanpo, zaintzaren etika eta erantzukidetasuna gizonezkoen hezkuntza ereduetan sartzeko tresnak sortzea.

2.5. EKINTZA

0 eta 3 urte bitartekoentzako haur eskoletako tokiak ugaritzea eta ordutegiak malgutzea.

2.6. EKINTZA

Toki kopuru bat gordetzea haur eskolan, eskolan eta institutuan familiako kargak dituzten eta bakarrik dauden emakumeentzat.

2.7. EKINTZA

Emakumearen Zinegotzigoak bultzaturiko kanpainak hedatzea diskriminazio egoerez ohartarazteko: emakumeen aurkako indarkeria, erantzukidetasuna, hizkuntza ez sexista, etab.

2.8. EKINTZA

Irakasleak nahiz familiak ohartaraztea jolasak nortasuna eraikitzen duen inportantzia. Batetik, jostailu eta jolas ez sexistei erreferentzia berezia egin behar zaie; bestetik, lehentasuna eman behar zaio neska-mutilek etxearekin eta esparru publikoarekin erlazionaturiko jolasak egiteari.

3. helburua

Berriozarko haur eta gazteengan berdintasunezko jarrera eta pentsaerak lortzea.

3.1. EKINTZA

Eduki ez sexista duten ipuinen, liburuen eta lan materialen zerrenda bibliografikoa egitea.

3.2. EKINTZA

Eskolako eta udaleko liburutegiak testu liburu eta material didaktiko ez sexistez hornitzea.

3.3. EKINTZA

Eskolan egun izaten diren diskriminazio egoerez jabeazteko tailerrak, jardunaldiak, lehiaketak, etab. antolatzea.

3.4. EKINTZA

Berriozarko eskola-populazioa etxeko lanaren duintasunaz ohartaraztea.

3.5. EKINTZA

Haur eta gazte populazioari zuzendua, etxeko lanetan eta zaintza azturetan behar den erantzukidetasunari buruzko prestakuntza.

3.6. EKINTZA

Gizonezko ikasleen indarkeriazko portaerak aurreikusteko eta erazteko tailerrak eta bestelako jarduerak.

3.7. EKINTZA

Emakumezko ikasleentzako prestakuntza erabakiak hartzearen eta botere publikoa gauzatzearen gainean.

3.8. EKINTZA

Aisialdiarekin erlazionaturiko populazioa hezkidetzaz eta berdintasunezko portaerez ohartaraztea (aisialdiko eskolak, gazteen elkarteak, aisialdiko monitoreak, ludotekako arduradunak...).

3.9. EKINTZA

Berdintasunezko ariketei buruzko eskola lehiaketak: erantzukidetasuna, gizartean parte hartzea, indarkeriaren aurrean tolerantzia...

4. helburua

Emakume helduak hezkuntza sistemako maila eta aukera guztietara sar daitezen laguntzea, genero ikuspuntutik.

4.1. EKINTZA

Helduen irakasleak hezkidetzan prestatzea.

4.2. EKINTZA

Berdintasunerako Plana populazio helduaren artean hedatzea.

4.3. EKINTZA

Emakumezko helduak prestakuntza arautuko eta arautu gabeko maila guztietara joan daitezen sustatzea, informazio eta animazio bideak sortuz.

4.4. EKINTZA

Pertsona ikasgabeentzat alfabetatze ikastaroak planifikatzea.

4.5. EKINTZA

Populazio talde guztien eskaerei erantzuteko ikastaroak eskaintzea: norberaren sustapena, aisialdi emankorra, aukera berdintasuna, soziokulturalak, erantzukidetasuna...

4.6. EKINTZA

Hezkuntzako erregistro guztietan sexu aldagaia exijitzea.

4.7. EKINTZA

Heziketa jarduerak gauzatzen dituzten enpresak edo pertsonak kontratatze oinarrietan lehentasunezko irizpideak sartzea honako neurri hauetako bat hartzen dutenentzat: emakumeen gutxieneko kopurua langileen artean, giza baliabideen politikan emakumezkoentzat neurri positiboak jarri edo emakumeen kontratazioa hobetsi egiten dutenentzat.

5. helburua

Emakumezkoek "gizonezkoenak" izaten diren instrumentuak erabil ditzaten bultzatzea eta, aldi berean, gizonek gutxiago erabiltzen dituztenetara gizon gehiago bideratzea.

5.1. EKINTZA

Musika-orientazioa genero ikuspegia emanez planifikatzea, ikasleen sexuan ez baizik eta norberaren trebetasunetan oinarrituz.

5.2. EKINTZA

Emakumeak "emakumezkoenak" gutxitan izaten diren instrumentuak erabiltzera bultzatzea, hala nola gizonezkoak "emakumezkoenak" erabiltzera.

ALOR ARDURADUNAK

Berriozarko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoa, Hezkuntza, Kultura, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Ogasuna eta Langileen alorrak.

8.4. KULTURA

Zanpantzar taldeetan Berriozarko Harizdi Zanpantzarra, 1987an sortua, izan zen lehena bere baitan emakumeak izaten.

Begi bistakoa da emakumeak kulturara sartzeko bidean aldaketa handiak izan direla. Baina oraindik luzea izanen da bide hori. Gizon eta emakumeen arteko rol banaketa desorekatua dela eta, espazio publiko oro -kultura barne- emakumeen esparrutik urrun geratu da.

Kulturarako sarbidea berdintasun egoeran izan dadin bultzatu behar dugu, emakumeak sartzeko dituen oztopoak aintzat hartuz.

Emakume orok bere aisiaz gozatzeko eta aisialdia aktiboki betetzeko duen eskubidea erabat onartua izatea lortu behar dugu.

Emakumeen irudia eta haiek kulturari egin dioten ekarpena ikusarazi behar ditugu.

Helburu orokorra

Udalaren kultur politika diseinatzean, emakumezkoak kontuan hartzea ordutegiei eta jarduera motei dagokienez; sexuen arteko berdintasuna sendotzen duten jarduerak sustatzea; eta hizkuntzan, irudietan eta ikurretan diskriminazio oro ezabatzea.

Helburu zehatzak

1. helburua

Berriozarko emakumeei kultura hurbiltzea.

1.1. EKINTZA

Aukera berdintasunarekin erlazionaturiko kultur jarduerak antolatzea urte osoan nola zenbait egun berezitan: martxoaren 8an -Emakume Langilearen Eguna- eta azaroaren 25ean -Tratu Txarren Aurkako Eguna-.

1.2. EKINTZA

Ordutegiak zabaltzea kultur jarduerak eta laneko eta familiako ardurak bateratu ahal izateko.

1.3. EKINTZA

Programaturiko kultur jardueren orduetan ludoteka haurtzaindegizat erabil dadin, beharrezko baliabide teknikoek eta giza baliabideez hornitzea.

1.4. EKINTZA

Emakumeek eta emakumeen inguruan eginiko kultura sustatzea.

1.5. EKINTZA

Irakurtzeaz zaletzeko tailerrak antolatzea emakume helduentzat.

1.6. EKINTZA

Emakumeek eskaturiko jarduerak planifikatzea.

1.7. EKINTZA

Emakumeak bizitzan eta historian izaniko garrantzia aldarrikatzea eta zabalkundea sustatzea.

1.8. EKINTZA

Kulturaren gaineko informazioa emakumeak egoten diren espazioetara eramatea.

1.9. EKINTZA

Emakumeen arte-sorkuntza sustatzen duten deialdiak edo lehiaketak egitea; baita emakumeen gaien ingurukoak direnak ere, berdintasuna oinarri izanik.

1.10. EKINTZA

Lehiaketa eta bestelakoen bidez, aldian-aldian, sexuen arteko berdintasunari buruzko eztabaida bultzatzea.

1.11. EKINTZA

Udaleko eta eskolako liburutegiak esparru guztietako aukera berdintasunari buruzko liburu eta materialez hornitzea. Materialak erraz ezagutzeko eta erabiltzeko identifikatuko dira.

1.12. EKINTZA

Familiaren baitan gauzatzeko jarduerak antolatzea.

2. helburua

Patronatuak genero ikuspuntutun kultur jarduerak planifikatzea eta adierazpen, ikur eta irudi sexista oro ezabatzea.

2.1. EKINTZA

Udaleko langileak hizkuntza ez sexistan eta genero ikuspegitiko kulturaren planifikazioan prestatzea; baita gazte boluntarioak, aisiako monitoreak eta Berriozarren kultur jarduerak planifikatzen dituzten beste pertsonak ere.

2.2. EKINTZA

Kultur alorrak argitaratzen dituen dokumentu guztiak aldian-aldian berrikustea, beti bi sexuen gaineko berdintasunezko irudia zabal dezan.

2.3. EKINTZA

Kultur alorreko erregistro guztietan sexu aldagaia exijitzea.

2.4. EKINTZA

Kultur jarduerak gauzaten dituzten enpresak edo pertsonak kontratatzeko oinarrietan lehentasunezko irizpideak sartzea honako neurri hauetako bat hartzen dutenentzat: emakumeen gutxieneko kopurua langileen artean, giza baliabideen politikan neurri positiboak emakumezkoentzat, emakumeen kontratazioa hobestea.

3. helburua

Gizartea jabeaztea emakume orok bere aisia baliatzeko eta aisialdia aktiboki betetzeko duen eskubideaz.

3.1. EKINTZA

Trebetasun sozialak, auto-estimua eta sormena garatzen laguntzen duten jarduerak programatzea, emakumeen gaitasunen garapen erreala lortzeko.

ALOR ARDURADUNAK

Berriozarko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoa, Kultura, Hezkuntza, Ogasuna eta Langileen alorrak.

8.5. GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen %70 baino gehiago emakumeak dira.

Gizarteak emakumeari familiaren zaintzaile eginbeharra egokitu izanak emakumea Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile nagusia izanarazten du. Hortaz, emakumeek gehien aurkezturiko eskaera biziraupen beharrak asetzeko baliabide osagarriei dagokie (aldizkako prestazioak eta ez aldizkakoak). Horien onuradunak familiako kide guztiak, izaten dira.

Beste alde batetik, pobrezia "emakumezkoagoa" da oraindik ere gure udalerrian eta, beraz, emakumeak bi aldetatik dira kalteberak. Bestalde, gizarte egitura berriak sortzen diren heinean baztertze bikoitzeko taldeak osatzen dira: bakarrik egonik familiako kargak dituzten emakumeak, ordainsari urriak jasotzen dituzten alargunak, emakume minusbaliatuak, prostitutak, preso ohiak, baliabiderik gabeko immigranteak...

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da ezberdintasun bikoitz hori arinduko duten neurriak hartzea, sexu aldagaia bazterkeriarako beste zioekin uztartuz: etnia, arraza, bakarrik dagoen haurdun izatea, e.a.

Helburu orokorra

Gizarte Ongizatearen jarduera osoa programatzean, erreferentzia emakumezkoen adin tarte bakoitzaren ezaugarriak izatea eta haienezko zerbitzu egokiak sortzea. Bereziki kontuan hartu behar dira egoera prekarioetan eta gizarte baztertze

egoeretan dauden emakumeak, eta beren kargu mendeko pertsonak dituztenak.

Helburu zehatzak

1. helburua

Baztertze egoeretan dauden emakumeentzat gizarteratzeko neurriak sustatzea, pobrezia gero eta "emakumezkoagoa" izatea saihesteko.

1.1. EKINTZA

Berriozarko Udaleko Lan, Emakume, Hezkuntza eta Langileen alorrekin lan egitea prestakuntza emateko garaian eta hezkuntza sisteman tokiak gordetzeko garaian (haur eskola, eskola publikoa eta institutua) honako ezaugarriak dituzten emakumeak lehentasuna izan dezaten: bakarrik egonik familiako kargak dituztenak, tratu txarren biktimak direnak, baliabiderik gabeko immigranteak...

1.2. EKINTZA

Hirigintzarekin koordinazioa gauzatzea babes ofizialeko etxebizitzak baztertze egoeran dauden emakumeei lehentasunez esleitzeko.

1.3. EKINTZA

Gizarte Zerbitzuetako teknikariak genero ikuspegian prestatzea, hori marjinaltasun gehitua delako.

1.4. EKINTZA

Baztertze egoerako emakumeek gizartean eta elkarteetan parte hartzea sustatzea; baita udal zerbitzu guztiek antolatzen dituzten jarduera, ikastaro eta tailerretan ere.

1.5. EKINTZA

Emakume zaharrentzako laguntza programak diseinatzea.

1.6. EKINTZA

Prostitutentzako programa bereziak sortzea, haiek lan eta gizarte sareetan berriz sartzea laguntzeko.

1.7. EKINTZA

Elkartasunari buruz eta hainbat gizarte-talderen integrazioari buruzko sentsibilizazio kanpainak egitea (batez ere, talde horietako emakumeen integrazioaz).

1.8. EKINTZA

Gizarte baztertze egoeran dauden emakumeei begira tailerrak eta ikastaroak bultzatzea, gizarte trebetasunak eta auto-estimua garatzen laguntzeko.

1.9. EKINTZA

Emakume baztertuek pairatzen dituzten larrialdietan Gizarte Zerbitzuek lehentasunezko erantzuna ematea.

1.10. EKINTZA

Emakume ijitoekin lan egiten duten kolektiboek laguntzea.

1.11. EKINTZA

Lan eta familia alorrak bateratzeko neurririk eza dela eta, gero eta handiagoa den "amona-kanguru" direlakoan arazoa eta ongizate galera aztertzea.

2. helburua

Berriozarko populazioa gizarte baztertze egoeran dauden emakumeek pairatzen duten diskriminazio bikoitzaz ohartaraztea, eta berdintasunezko eta pertsona bakoitzaren norbanakotasunekiko tolerantziatzeko gizartearen sustatzea.

2.1. EKINTZA

Bazterturiko emakumeentzako laguntza taldeak sortzen laguntzea, haientzako jarduerak diruz lagunduz.

3. helburua

Emakumeen arazoak ikustaraztea.

3.1. EKINTZA

Gizarte Zerbitzuetako erregistro guztietan sexu aldagaia exijitzea.

3.2. EKINTZA

Gizarte Zerbitzuen jarduerak gauzatzen dituzten enpresak edo pertsonak kontratazeko oinarrietan lehentasunezko irizpideak sartzea honako neurri hauetako bat hartzen dutenentzat: emakumeen gutxieneko kopurua langileen artean, giza baliabideen politikan neurri positiboak emakumezkoentzat, emakumeen kontratazioa hobestea.

3.3. EKINTZA

Emakumeek gizartearen garapenari eginiko ekarpenari balio handiagoa ematea, emakumeek munduko hainbat herrialdetan beteriko lana erakutsiko duten jarduerak antolatuz.

ALOR ARDURADUNAK

Berriozarko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoa, Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza, Lana, Ogasuna eta Langileen alorrak.

8.6. LANA

Berriozarren 2002ko abenduan gizonen %37 zegoen langabezian emakumeen %63aren aldean. Emakumeei Berriozarko Infolan zerbitzuan eskaintzen zaizkien lanak "emakumezkoenak" dira: garbitzaile, zaintzaile, saltzaile, sukalde-laguntzaile eta holakoak. Berriozarko emakume langabetuaren profila 30 eta 40 urte bitarteko eta lanbide prestakuntza baxuko emakumearena da.

Emakumezkoen langabezi tasa gionezkoena bi halakoa da eskuarki. Emakumea lan merkatura azken hamarkadetan sartuz joan bada ere, argi dago sartzeko baldintzak, lanpostuak, eta, jakina, ordainsariak, ez direla gizonenekiko berdintasunez izan. Estatistiken arabera, emakumeak gizonak baino %30 gutxiago kobratzen du lanpostu berean. Emakumeentzako lanpostuak prestakuntza txikienekoak dira eta, oro har, zaintza eta garbiketa alorrekoak. Eta erantzukizuneko postuetara jotzea eskuarki debeku zaie emakumeei.

Arduratu behar gara ezberdintasun horiek murriz daitezen eta lan eta familia alorren bateratzea sendotzeko neurriak har daitezen.

Helburu orokorra

Berriozarko emakumezkoen langabezi tasa gutxitzea, eskaintza eskaerari egokitzuz eta emakumeen kontratazioa bultzatzeko ekintzak sustatuz.

Helburu zehatzak

1. helburua

Berriozarko emakumeak lan merkatura sar daitezen laguntzea.

1.1. EKINTZA

Lanbide prestakuntzako programak sustatzea, enplegu sorburu berriak eta berritzaileak diren lanbideei buruz bereziki (teknologia berriak...).

1.2. EKINTZA

Berriozarko emakumezko langabetuak Foru Komunitatean den enplegu eskaintzara egokitzea, birziklatzeko prestakuntza eskainiz. Gidatzeko baimena lortzera bultzatzea.

1.3. EKINTZA

Betetzen zailak diren eskaintzetarako lan poltsak sortzea.

1.4. EKINTZA

INFOLAN zerbitzuaren berri Berriozarko emakume eta enpresen artean hedatzea eta, lan egokiagoa egin dezan, baliabide tekniko eta giza baliabide gehiagoz hornitzea.

1.5. EKINTZA

Lan alorreko jarduerak gauzatzen dituzten enpresak edo pertsonak kontratatzeke oinarrietan lehentasunezko irizpideak sartzeari honako neurri hauetako at hartzen dutenentzat: emakumeen gutxieneko kopurua langileen artean, giza baliabideen politikan neurri positiboak emakumezkoentzat, emakumeen kontratazioa hobestea.

1.6. EKINTZA

Berriozarko enpresaburuak ohartarazteko kanpainak planifikatzea, enpleguan aukera berdintasuna sustatzeko, sexu arazoietan oinarrituriko diskriminazioa ezabatzeko eta profilak berdinak direnean emakumeen kontratazioa bultzatzeko.

1.7. EKINTZA

Kontratatzeke orduan sexu arazoietan oinarrituriko zuzeneko edo zeharkako diskriminazioen salaketak bideratzea.

1.8. EKINTZA

Emakumeek enplegura guztiz sartzeko dituzten oztopoak kentzea (lan ordutegia, garraioa, haur eskoletako ordutegia, mendeko pertsonen zaintza etab.).

1.9. EKINTZA

Enpresek emakumeak kontratatzeke orduan izaten dituzten dirulaguntzak, babesak eta hobariak azalduko dituen gida egitea eta populazio osoari banatzea.

1.10. EKINTZA

Udalak egiten dituen eta hark azpikontraturiko enpresek egiten dituzten kontratazioetan, familia kargak dituzten edo tratatu txarren biktimak diren emakumeei lehentasuna ematea.

1.11. EKINTZA

Lan alorra kudeatzen duten teknikariei aukera berdintasunaren gaineko prestakuntza ematea.

2. helburua

Emakumeak herrian dituen lan baldintzak hobetzea.

2.1. EKINTZA

Emakumeek lanean pairatzen duten sexu erasoari buruzko informazioa eta aholkularitza. Eraginikoei babes, laguntza eta zerbitzu juridiko eta psikologikoa ematea.

2.2. EKINTZA

Udalerriko emakumeei emakume langile ororen lan eskubideak ezagutzera ematea (baimenak, eszedentziak, laguntzak...).

2.3. EKINTZA

Etxe-zerbitzuari buruzko legeak aplikatzeko kanpaina bat sustatzea eta horiek bete daitezen zaintzea.

2.4. EKINTZA

Gizarte trebetasunetako eta buruzagitza tekniketako prestaketa beren lanean promozionatu nahi duten emakumeentzat.

2.5. EKINTZA

Familia eta lan alorrak bateratzearen abantailez jabetzeko kanpainak planifikatzea eta Foru Komunitateko hainbat enpresak harturiko neurri positiboak ezagutaraztea.

2.6. EKINTZA

Mendeko pertsonentzako jolas, hezkuntza eta laguntza eskaintza zabaltzea eta gurasoen lan ordutegiei egokitzea.

3. helburua

Berriozarko emakumeen jardun ekintzailea indartzea.

3.1. EKINTZA

Foru Komunitatean eta Estatuan emakumeek enpresak sor ditzaten ematen diren laguntzen berri ematea.

ALOR ARDURADUNAK

Berriozarko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoa, Lan alorra, Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Ogasuna eta Langileen alorrak.

8.7. HIRIGINTZA

Emakumeek hiri bizigarriagoa nahi dute, elkarbizitza samurra izan dadin, berdintasunezkoa eta orekatua. Hornidurak eta saltokiak etxetik hurbil nahi dituzte, baita garraio publiko ona ere.

Bai espazio publikoa bai pribatua oso bestela erabiltzen dituzte gizonek eta emakumeek. Horregatik gu, emakumeok,

hartu behar gaituzte kontuan udalerraren, etxebizitzaren eta espazioen banaketa planifikatzeko orduan.

Emakumeek joan-etorri gehiago egiten dute, ez gizonek dituzten ordutegietan, eta bestelako garraiobideak erabiltzen dituzte. Familia guneak aldatu dira, beraz, haien bizitokiak eta berauen banaketa ere aldatu behar dira. Espazioak traba arkitektonikorik gabeak izan behar dira. Eta, azkenik, emakumeen segurtasunaren gaia dago, gauekoa batik bat.

Errealitate horiek hirigintza politikaren planifikazioarekin lotu behar ditugu Berriozarko herritar guztientzat bizi kalitate hobea lortzeko.

Helburu orokorra

Emakumeen arazoak eta beharrak udalerraren diseinua egitean kontuan hartzea, espazio publikoetan zein pribatuetan nola garraioan izan, eta trabak, arkitektonikoak nahiz kulturalak, kentzea.

Helburu zehatzak

1. helburua

Emakumeek zerbitzu publiko eta sozialetara jotzea erraztea eta haiek udalerriko arazo guztietan parte hartzea erraztuko duen hiri espazio bat eratzen laguntzea.

1.1. EKINTZA

Generoen araberako ikerketa eta azterketak bultzatzea, emakumeei eragiten dieten eguneroko arazoak islatuko dituztenak eta hobetzeko proposamenak eginen dituztenak.

1.2. EKINTZA

Egun karriketan eta udal lokaletan diren traba arkitektonikoak pixkanaka ezabatzea, mugikortasun murriztua duten pertsonen bizitza aktiboan parte hartzea eragozten dutelako, hala nola Gizarte Zerbitzuetan, Alba Zentroan, Kultur Etxean...

1.3. EKINTZA

Udalerrian segurtasun eta erosotasun handiagoak bermatzea. Garraio publikoari dagokionez, ordutegia hobetzea eta bertan argiztapena egokiagoa jartzea.

2. helburua

Hirigintza politika emakumeen arazoak kontuan hartuz planifikatzea, eta haiek hiriaren antolaketan parte har dezaten sustatzea.

2.1. EKINTZA

Emakumeen elkarteentzat eta, oro har, interesa duten emakume guztientzat, emakumeari eta hirigintzari buruzko prestakuntza ikastaroak eta jardunaldiak antolatzea, haiek hiriaren diseinuan eta antolaketan parte-hartze handiagoa izan dezaten.

2.2. EKINTZA

Hirigintza alorrean lanean ari diren teknikariei genero ikuspuntuko prestakuntza ematea.

2.3. EKINTZA

Landa bideak emakumeen aisialdirako sustatzea eta egokitzea.

2.4. EKINTZA

Hirigintza batzordeak emakumeen proposamenak aditzea Berriozarko hirigintza politika planifikatzean kontuan har daitezen.

2.5. EKINTZA

Biztanleen iradokizunak jasotzeko gune bat sortzea.

2.6. EKINTZA

Berriozarko Hirigintza Planeamenduan emakumeei beren aisialdia gozatzea ahalbidetuko dieten zerbitzuak sortzeko adinako zorua gordetzea (haur eskolak, eguneko zentroak, pertsona zahar edo minusbaliatuentzako egoitzak, etab.).

2.7. EKINTZA

Hainbat plaza eta parke biztanleen aisialdiko beharretara egokitzea, haur eta zaharren beharretara, batez ere.

2.8. EKINTZA

Etorkizunean genero ikuspegia izanen duten hirigintza proiektuak lehenesteko irizpideak finkatzea.

3. helburua

Etxebizitzak esleitzeko orduan, problematika berezia duten familia guneentzako lehentasunezko irizpideak finkatzea.

3.1. EKINTZA

Babes ofizialeko etxebizitzan esleipenean lehentasuna ematea tratu txarren biktimei, bakarrik egonik familia kargak dituzten edo haurdun dauden emakumeei...

4. helburua

Udalaren hirigintza jardueran emakumezkoa ikusaraztea.

4.1. EKINTZA

Karrikeri, plazeri, udal zerbitzuei, etab. emakumezkoen izenak ematea.

4.2. EKINTZA

Hirigintza alorreko erregistro guztietan sexu aldagaia exijitzea.

4.3. EKINTZA

Hirigintza alorreko jarduerak gauzaten dituzten enpresak edo pertsonak kontratatzeke oinarrietan lehentasunezko irizpideak sartzea honako neurri hauetako bat hartzen dutenentzat: emakumeen gutxieneke kopurua langileen artean, giza baliabideen politikan neurri positiboak emakumezkoentzat, emakumeen kontratazioa hobestea.

5. helburua

Emakumeek ingurumenaren zainketan parte har dezaten bultzatzea.

5.1. EKINTZA

Ingurumenari buruzko ikastaroak, tailerrak eta bestelako jarduerak sustatzea, Berriozarko emakumeei bideratuak, haiek udalerriko ingurumen politikan parte aktiboa izan daitezen.

5.2. EKINTZA

Emakumeek ingurumenari buruz dituzten kezka eta iradokizunak jasotzeko bideak sortzea.

ALOR ARDURADUNAK

Berriozarko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoa, Hirigintza, Gizarte Ongizatea, Kultura, Ogasuna eta Langileen alorrak.

8.8. KIROLA

*Berriozarko kirol alorreko partaidetza sexuen arabera aztertzen badugu, **Kirol Eskoletan** emakumezkoena osoaren %20,10 dela ikusten da. Futbolean ez dago eta pilotan eta herri kirolean oso-oso txikia da (%5,13 eta %9,09 hurrenez hurren). Handixeagoa da areto-futbolean (%20,9), patinajea (%25) eta xakean (%27,27).*

***Helduen mailako lehiaketetan** are txikiagoa dute partaidetza, herri kirolean aritzen diren pertsona guztien %3,57 baitira emakumeak, eta saskibaloian ez dago emakumerik, partaidetza osoa, beraz, %2,56 soila da.*

Emakumeek egiten dituzten ariketa fisikoa eta kirola estereotipo sexistek murriztu dituzte iraganean. Neskatoak eta neska gazteak ez dira horretatik libratzen. Kirol modelo gutxitan ikus dezakete beren burua islaturik eta komunikabideetan ia ez da emakumezkoen kirol gertakaririk aipatzen.

Horregatik da beharrezko emakumeak kirol praktikan behin eta berriro ikusaraztea, eta parte-hartzea areagotzeko neurriak hartzea.

Helburu orokorra

Emakumeen parte-hartzea areagotzea kirol jardueretan, oro har, eta bereziki emakumeek, neska gazteek eta neskatoek partaidetza txikia duten haietan.

Helburu zehatzak:

1. helburua

Gizonezkoen eta emakumezkoen kirolen inguruko estereotipoak ezabatzea.

1.1. EKINTZA

Ikasleak, guraso elkarteak eta irakasleak ohartarazteko kanpainak egitea, kirolean sexuaren arabera ezberdindu gabe aritzeko, eskolan zein eskolatik kanpo.

1.2. EKINTZA

Emakumezkoen kirol jarduna sustatzea egun partaidetzarik ez duten edo txikia duten jardueretan.

1.3. EKINTZA

Irakasle ororentzako eta, batik bat, heziketa fisikoko profesionalentzako prestakuntza programak garatzea, kirol jardueren planifikazioan berdintasunaren irizpideak gehi ditzaten.

1.4. EKINTZA

Neska txikiek eta gazteek ondorengo adinetan kirola egiten jarraitu ahal izateko prestakuntza eta kondizio fisikoak lor ditzaten bultzatzea.

2. helburua

Berriozarren egun emakumezkoek kirolean duten partaidetza indizeak handitzea.

2.1. EKINTZA

Kirol jarduerak osasunean eragiten dituen onurei buruzko dokumentu bat egitea adin guztietako emakumeei bideratua.

2.2. EKINTZA

Kirol eskaintza adin guztietan eta kirol guztietan zabaltzea. Horretarako, ordutegi malguak eta emakumeen bizitzako une berezietarako aukerak sartu: haurdunaldia, erditze-ondokoa, menopausia...

2.3. EKINTZA

Emakumeek osaturiko kirol elkarte edo/eta klubak sortzeko eta sendotzeko bultzada ematea.

2.4. EKINTZA

Guraso elkarteak, irakasleak, eskola kontseiluak, etab. kirola aukeratzean zein ikastetxeek beren kirol jarduerak planifikatzean sexuaren eraginaren ezaz jabeaztea.

3. helburua

Kirol Patronatuak azpikontraturiko enpresetako langileak hautatzeko irizpideak kontrolatzea, eta berdintasunezko irizpideak jarraitzen dituztenei lehentasuna ematea.

3.1. EKINTZA

Kirol Patronatuko erregistro guztietan sexu aldagaia exijitzea.

3.2. EKINTZA

Patronatuaren jarduerak gauzatzen dituzten enpresak edo pertsonak kontratatzeko oinarrietan lehentasunezko irizpideak sartzea honako neurri hauetako bat hartzen dutenentzat: emakumea gutxieneko kopurua langileen artean, giza baliabideen politikan neurri positiboak emakumezkoentzat, emakumeen kontratazioa hobestea.

ALOR ARDURADUNAK

Berriozarko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoa, Kirol Patronatua, Osasun Zinegotzigoa, Hezkuntza Zinegotzigoa, Ogasuna eta Langileen alorrak.

8.9. UDALA

EB, 9.2. art.: "Botere publikoen eginkizunak dira: banakoaren eta berau hartzen duten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen kondizioak sustatzea; horien osotasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoei eragitea eta herritar guztiek politikan, ekonomian, kulturen eta gizarte bizitzan parte har dezaten erraztea."

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 9.2.1. art.: "Udalbatzek erraztu egingen dute (...) herritar guztiek tokiko bizitzan parte hartzea".

Gizarteak emakumeei espazio pribatua esleitu dizkie eta gizonei publikoa, produkzioarena, erabakiak hartzekoa. Pixkanaka emakumezkoak esparru publikora jo du, baina zailtasun handiz, oraindik ere izaten diren zailtasunez.

Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen erakunde politikoa denez, ereduazko neurriak finkatu behar ditu gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruz, dauden diskriminazioak ezabatu eta zailtasun horiei aurka egiteko neurri positiboak bultzatu.

Helburu orokorra

Aukera Berdintasunaren printzipioaren aplikazioa udal esparru guztietan bultzatzea eta sustatzea.

Helburu zehatzak

1. helburua

Udaleko langile guztien jardunean berdintasunezko ereduak hartzea ebazpen eta jakinarazpenetan.

1.1. EKINTZA

Administrazioko hizkuntzaren eduki diskriminatzaileak ezabatzea eta Udalak editatzen dituen informazio orokorreko aldizkako argitalpen edo argitalpen puntualetan hizkuntza sexista eta irudi edo ikur diskriminatzaileak saihesteko segimendua egitea.

1.2. EKINTZA

Toki administrazio osoa aukera berdintasunaren gaiaz areago ohartaraztea. Horretarako, funtzionario, bestelako langile eta politikariei generoari buruzko prestakuntza emanen zaie jardunaldi, mintegi eta ikastaroen bidez.

1.3. EKINTZA

Berriozarko Udaleko negoziozko kolektiboan aukera berdintasunaren printzipioa sartzea, eta sexu eraso eta haurdunaldiko arriskua espresuki erregulatzea.

1.4. EKINTZA

Udaltzaingoari prestakuntza ematea tratatu txarren eta sexu erasoen salaketak jasotzean eta erantzutean genero ikuspegiko esku-hartzea izateko.

2. helburua

Berriozarko Udalak dituen baliabideen gaineko informazioa eta haietara jotzeko bidea erraztea.

2.1. EKINTZA

Udaleko eta beste hainbat administrazioetako zerbitzuen informazioa emateko buletin bat egitea, zerbitzuen eginkizunak, kokapena, telefonoa, etab. zehazturik. Ahal den hizkuntza guztietan eginen da eta erroldatzean derrigorrean eta azalpen egokiak gehituta emanen da.

2.2. EKINTZA

Udal zerbitzuen ordutegia zabaltzea eta malgutzea lan ordutegiekin bateragarriagoa izan dadin.

2.3. EKINTZA

Udal zerbitzu guztiek herritarrei kalitateko zerbitzuak garaiz eman diezazkieten, beharrezko baliabide teknikoek eta giza baliabideez hornitzea.

3. helburua

Berriozarko Udaleko langileriaren kontratazioan, prestakuntzan eta promozioan aukera berdintasunaren printzipioa oinarri izanen duen politika aktiboa garatzea.

3.1. EKINTZA

Udalaren enplegu eskaintzaren baldintzak aldian-aldian berrikustea. Izan ere, berdintasunaren printzipioa bermatuko duten mekanismoak finkatu behar dira beti; batetik, egoera berdinean emakumeak lehenetsi behar dira eta, bestetik, lehentasunezko irizpideak ezarri behar dira bakarrik egonik familia kargak dituzten emakumeentzat, tratu txarren biktimak diren emakumeentzat, etab.

3.2. EKINTZA

Zerbitzu enpresen kontrataziorako oinarriak berrikustea. Irizpideak finkatu behar dira lehenesteko nagusiki emakumeak kontratatzen dituztenak eta ekintza positiboak gauzatzen dituztenak familia eta lana bateratzearen alde, emakumezkoen kontratazioaren alde eta abar.

3.3. EKINTZA

Emakumeek Udaleko, udal zerbitzuetako eta azpikontraturiko enpresetako erantzukizun postuetan duten presentziari buruzko ikerketa bat egitea.

3.4. EKINTZA

Nola Udalak hala haren mendeko organismoek (enpresak, elkarteak etab.) egiten dituzten azterketa eta txostenetan genero aldagaia ager dadin exijitzea.

4. helburua

Berriozarko biztanleria aukera berdintasunaren printzipioaz jabeaztea eta tradizionalki emakumei eta gizonei emaniko rolei buruzko jarrera kritikoa sustatzea.

4.1. EKINTZA

Udalak emakumeen borroken aldeko adierazpenak egitea egun seinalatuetan (martxoak 8, azaroak 25...).

4.2. EKINTZA

Zereginen banaketan emakumeek eta gizonek hartu beharrezko erantzukidetasunaz jabetzeko kanpainak egitea -zereginak esparru pribatukoak ala publikoak izan-, hala nola hezkidetzaz, emakumeen aurkako indarkeriaz eta emakumeek erabakiak hartzeko postuetan duten parte-hartzeaz. Horretarako partaidetza txikia izan ohi duteneko lanbide edo roletan ari diren gizon eta emakumeen irudiak ezagutaraziko dira.

4.3. EKINTZA

Publizitate sexistaren inguruan egiten diren salaketak bideratzea eta hori beren barnean duten iragarkiak kentzea.

4.4. EKINTZA

Udal ludotekan amak eta amonak denbora batean haurren zainketatik salbuetsiko dituen ordutegia zabaltzea, besteen artean Udalak antolatzen dituen jardueretara joan ahal izateko (ordutegiak adostuko dira).

4.5. EKINTZA

Udalaren Haur Eskolako ordutegia zabaltzea, lanaldiekin bateragarria izan dadin.

4.6. EKINTZA

Gizonezkoei bideraturiko sentsibilizazio-jarduerak sustatzea. Gizontasunaren gaineko bestelako ikuskera erakutsi behar da, oinarri hauek dituenak, hain zuzen: erantzukidetasuna, tolerantzia eta emakume eta gizonen berdintasunezko trataera.

5. helburua

Berriozarren emakumeen parte-hartzea eta presentzia aktiboa sustatzea.

5.1. EKINTZA

Emakumeek herrian duten presentzia aldian-aldian aztertzea.

5.2. EKINTZA

Erakunde publikoei zein pribatuei emakumeak zuzendaritza postuetan ere ari daitezen pizgarriak ematea.

ALOR ARDURADUNAK:

Emakumearen Zinegotzigoa, Udaleko alor guztiak.

8.10. IMMIGRAZIOA

Berriozarko biztanle gehienak Nafarroako hainbat herritatik etorriak dira, baina azken urteotan hainbat herrialdeetatik etorri dira beste asko eta asko. Hortaz, 2002ren bukaerako datuen arabera, erroldan 796 pertsona dira atzeritik etorririkoak (387 emakume eta 409 gizon), Berriozarren erroldaturiko populazio osoaren %10,34, hain zuzen. Haietarik 174 dira Komunitatekoak -77 emakume eta 97 gizon (gehientsuak portugaldarrak)- eta 622 Komunitatetik kanpokoak -310 emakume eta 312 gizon (gehienak Ekuadorkoak eta Marokokoak)-.

Emakumeok sektore kaltebera izanik, kalteberago dira emakume immigranteak. Etorkizun hobearen bila jaioterritik emigratu izanari askotan hizkuntza ezezaguna, oso bestelako ohiturak, etab. gehitu behar dizkiogu. Seme-alabek eta bikotekideak, eskolan eta lanean, inguruko pertsonekin harremanetan ibiltzeko aukera izaten dute. Haiei, berriz, ez zaie hain erraz suertatzen, batik bat etxetik kanpo lanik egiten ez badute, edo garbiketa lanetan edo adinez txikiak eta pertsona zaharrak zaintzen aritzen badira, lan horiek prekarioak izan ohi baitira eta kanpoko bizitzatik isolatzen baitituzte.

Berriozarren azken urteetan populazio immigrantea izugarri handitu denez, baztertze bikoitza pairatzen duten emakume horiek -emakume eta immigrante izateagatik- bereziki kontuan izan behar ditugu.

Helburu orokorra

Berriozarko emakumezko immigranteei emaniko zerbitzua hobetzea, berezko duten problematika bereziki kontuan hartzea eta berezko dituzten kultur ezaugarriak errespetatzea.

Helburu zehatzak

1. helburua

Emakume immigranteak Berriozarko gizarte eta kultur errealitatera hurbil daitezen lortzea.

1.1. EKINTZA

Euskaraz eta gaztelaniaz alfabetatzeko eta ikasteko ikastaroak antolatzea.

1.2. EKINTZA

Populazio immigranteari udal baliabideen berri hainbat hizkuntzatan ematea, biztanle horiek guztiek uler dezaten.

1.3. EKINTZA

Emakume immigranteei birziklatzeko prestakuntza ematea, Nafarroako sukaldaritzari eta ohiturei buruzkoa, lan merkatura sartzean topatzen dituzten oztopoak gainditzeko.

1.4. EKINTZA

Laguntza taldeak sortzea, komunitatean integratzen eta harrera izaten lagungarri.

1.5. EKINTZA

Berriozarko populazio immigrantearen kultura, ohiturak, etab. ezagutaraztea, biztanleria osoarentzat aberasgarri baitira.

1.6. EKINTZA

Udaleko eta alor guztietako teknikariak Berriozarko populazio immigranteetarik handienaren ohituretan prestatzea, zerbitzu hobea eman ahal izateko.

ALOR ARDURADUNAK:

Berriozarko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoa, Gizarte Zerbitzuak, Lana, Kultura, Hezkuntza, Euskara, Ogasuna eta Langileak eta gainerako udal alorrak.

9. Abiatzea, jarraipena eta ebaluazioa.

Abiatzea

Berriozarko Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako II. Plana abiatzeari ekin zaio, bertako Udalak onartu ondoren. Martxoaren 8a baino lehen onartu edo ez, Berriozarko herritar guztiak II. Planaz ohartarazteko eta informatzeko jardunaldia dago aurreikusirik. Guk denok Planaren berri izatea eta gure gizartearen eta etorkizuneko belaunaldien garapenerako duen garrantziaz jabetzea da horren asmoa.

Jarraipena

Emakumearen Zinegotzigoak sei hilean behin azterketa eginen du alor bakoitzean planifikaturiko edo eginiko jarduerak zehazteko, Planaren garapena xede.

Ebaluazioa

Urtero ebaluazioak eginen dira alor bakoitzak egindako txostenetan oinarrituta. Diseinaturiko jarduera bakoitzaren arabera, kuantifikatzaile kualitatiboak edo/eta kuantitatiboak finkatuko dira, jarduerak ebaluatu ahal izateko. Hobekuntza egokiak sartuko dira, hola behar denean, eta sakonki landuriko gaiak bukatutzat joko dira.

Ebaluazioak, *jardunerako ildoetara jarraiki*, prozesuak zein emaitzak eta biztanleriarengan lorturiko eragina aztertuko ditu.

<u>prozesuetan</u>	- jarduerak
<u>ebaluatuko ditugu</u>	- programak
	- zerbitzuak

Gaiaren arabera, hauek izanen dira adierazleak:

- familia
- hezkuntza
- enplegua
- erabakiak hartzeko partaidetza
- denboraren kudeaketa
- bizi kalitatea
- jarrerak

- estereotipoak
- balioak

Emaitzei dagokienez, hainbat dira adierazleak:

- *Informatzeko eta ohartarazteko jarduerarik egonez gero:*
 - kalitatearen identifikazioa,
 - mailaren identifikazioa,
 - erabilgarritasunaren identifikazioa...
- *Prestakuntzarik badago:*
 - ezagupenen aplikazioa,
 - lorturiko gaikuntza,
 - egokitasuna,
 - ezagupenen erabilgarritasuna...
- *Ikerketarik edo/eta ebaluaziorik egin bada:*
 - lorturiko emaitzak,
 - horien aplikazioa,
 - eginiko egokitzapenak...
- *bultzadarik eta koordinaziorik badago:*
 - erabiltzaileen asebetetzea,
 - beteriko beharrak,
 - partaidetza,
 - efikazia,
 - efektibotasuna,
 - jarrera aldaketak,
 - portaera aldaketak.

Bukatzeko, Planaren azkeneko ebaluazioa egingen da, aurreikusiriko lau urteak igarotakoan. Ebaluazio tresna ikerketa soziologiko bat izanen da landutako gaiak, batetik, eta egindako jarduerak Berriozarko biztanleengan lorturiko eragina, bestetik, aztertuko dituena.